

Haurdunaldia eta behçet

Gaixotasuna jatorri genetikokoa da, baina honek ez du esan nahi hereditarioa denik. Ume bat izateko zailtasunei dagokionez, ez dira gaixotasunaren baitakoak, baizik eta jasotzen ari den tratamenduarenak, izan ere, batzuk zailtu egin dezakete. Arazoak ekiditeko, ez da gomendagarria Behçeten gaixoak haurdun geratzea medikuarekin kontsultatu gabe, honek aurkituko baititu gaixotasuna kontrolatzeko sendagai onenak umeari minik eman gabe.

Haurdunaldiaren kontrako pilularik hartu daiteke?

Ikerketen arabera pilulek odolaren koagulazioan eragina izan dezakete, gaixotasun baskularretarako arrisku faktore bat bihurtuz. Nahiz eta faktore hau oso baxua izan mediku askok pilulen bidezko tratamendua bertan behera uztea gomendatzen dute tabakismoa edo faktore genetikokoa ere agertzen direnean. Behçeten gaixotasuna baskularra da, horregatik medikuek pilula hartzeko posibilitatea aztertu egin behar dute kasu zehatz bakoitzerako.

Non lor dezaket gaixotasunari buruzko informazio gehiago?

Espainiako Behçet Gaixotasunaren Elkarteak 2005ean jaio zen, gaixotasun hau bakardadean bizi duten 2.000 gaixo baino gehiagori eta beraien familiei laguntza eman asmoz. Elkartearekin www.behcet.es web orriaren bidez sar zaitezke kontaktuan, beste batzuen artean atal hauek aurkituz: gaixotasunari buruzko informazioa, sintoma eta tratamenduak, beste gaixo eta senideekin esperientziak elkarbanatzeko foroa...

Oraindik asko gara elkartzeke gaudenok, baina iadanik bagara dexente arrazoi berberarengatik baturik gaudenak: Behçet-en Sindromea. Ez gara asko; horregatik pentsatzen dugu elkartzea gure eguneroko bizitzan suertatzen zaizkigun arazoak konpontzeko modu egoki bat dela.

Espainiako Behçet Gaixotasunaren Elkartetik bilatzen duguna, bai gaixoak eta bai inguratzen gaituztenak bakarrik ez sentitzea eta ahal den neurrian aholkatu eta laguntzea da. Batasunak indarra egiten duela ere ez dugu ahaztu behar, beraz, laguntza, ikerkuntza, topaketa etab. desberdinen aurrean talde moduan bakarka baino hobeto erantzun ahalko dugu.

Elkartek, bere web orriko (www.behcet.es) foroari esker, behçet-en gaixoentzako topagune eta terapia onenak sortu ditu. Web-ean gaixotasunari buruzko informazio gehiago topa dezakezu, edo nahiago baduzu, gurekin kontaktuan jar zaitezke telefono edo e-mail bidez:

helbide elektronikoa
behcet@behcet.es

telefonoa: 659 576 879
Montserrat Pàmies, elkarteko lehendakaria

web
www.behcet.es

laguntzailea:



**ohiko
galderak**

*espainiako
behçet
gaixotasunaren
elkartea*

Zer da Behçeten gaixotasuna?

Gaixotasun minoritario bat da, Espainian 5 pertsonak 100.000 biztanleko, jatorri ezezagunekoa eta garapen kronikokoa. Gaixotasun autoinmune bat da gaixoaren sistema immunologikoa odol-hodien zelulak erasotzen dituelako, hauen inflamazio bat sortuz (baskulitisa). Handitze honek hainbat sintoma sor ditzake: aho edo genitaletako aftak, begi gaixotasunak, giltzaduretan arazoak, arazoak zirkulazio sisteman eta ezohikoagoak diren beste batzuk arazo digestiboak edo nerbio sistema zentrolean arazoak, adibidez.

Zerk sortzen du Behçeten gaixotasuna?

Gaixotasunaren jatorria ezezaguna da, nahiz eta ezaguna izan osagai genetiko baten presentzia pertsonak gaixotasuna izatea errazten duena. Hala ere, osagai honek ez du gaixotasuna %100ean azaltzen, ingurugiro faktore baten presentzia beharrezkoa delarik. Ingurugiro faktore hau gaur egun ezezaguna da eta infekzio biriko bat izatearen aukera kontsideratzen da.

Sendatzerik al dago?

Behçeten gaixotasuna, gaixotasun autoinmune gehienek moduan, ezin da sendatu. Gaixotasun kroniko bat da, gaixoaren bizitza aurrera joan ahala desagertzeko tendentzia duena. Pertsona bakoitzari modu ezberdinez eragiten dionez bere tratamendua ere aldatu egiten da. Gaixo bakoitzaren intentsitate eta maiztasunari egokia den tratamendu bat bilatzen da, berehala lortzen ez dena.

Zein medikuk tratatuko gaitu?

Gaixotasunak agerpen desberdinak izan ditzakenez, Behçeten gaixoak tratatzen dituzten espezialistak desberdinak dira. Gehienbat reumatologo eta internistak, baina baita oftalmologo eta neurologoak ere, beste batzuen artean. Egokiena diziplina anitzeko talde batek tratatzea da, mediku arduradun batek koordinatua.

Diagnostiko bat gauzatzeko probarik badago?

Diagnostiko bat lortzea zaila izaten da ez baitago Behçetentzako proba espezifikorik; ondorioz diagnostiko diferentzial bat gauzatzen da beste gaixotasun batzuk baztertzea helburu duena. Horrez gain, gaixoak diagnostikatzeko, badago sailkapen sistema bat aho aftak kontuan hartzen dituen beste bi sintoma edo gehiagorekin batera, zeintzuen artean egon daitezkeen: ultzera genitalak, begietako gaitz inflamatorioak, azaleko gaitz espezifikoak edo azalaren erreaktibitatea neurtzen duen test baten posibilitatea (patergia).

Hereditarioa al da?

Nahiz eta osagai genetiko bat existitu eta gaixotasuna duten senideen kasuak egon ikerketa denen arabera gaixotasuna ez da hereditarioa eta ez du herentzia patroli mendeliar bat jarraitzen.

Kutsakorra al da?

Ez dago Behçeten gaixotasuna kutsatzeko inolako modurik.

Dieta bereziren bat mantendu behar al da?

Bizimodu osasuntsu bat mantendu behar da dieta orekatu batekin, modu horretan sistema immunologikoa aktibitate egokia mantenduz.

Ez dago elikagai debekaturik, eta orain arte ez dago gomendio espezifikorik. Edozein zalantzaren aurrean kontsultatu espezialistarekin edo nutrizionistarekin.

Behçeten gaixo batek odola eman dezake?

Behçeten gaixotasuna duten pertsonak ez dira odol emaile moduan onartuak, gaixotasuna kroniko edo afektazio gastrointestinal, genitourinario eta immunologikoen artean baitago (Anexo II sobre Criterios de selección de donantes de sangre total y componentes sanguíneos del REAL DECRETO 1088/2005, de 16 de septiembre de 2005).

Behçeten gaixo batek organoak ematerik al du?

Printzipioz ez dago arazorik organoak edo ehunak emateko, ez baita gaixotasun kutsakor bat. Arazo bakarra organoa edo ehuna gaixotasunaz kutsaturik egotea da, batez ere baskulitisaren ondorioz, transplante taldeak indibidualki baloratu beharrezkoa ematea planteatzeko momentuan.